

ECO CHARLY BRAVO

Hitz hauek entzutean, filme belikoak edo kamioilariei buruzkoak etortzen zaizkigu burura. Baina aspal-didanik, irratia filmeetako gauza hutsa izateari utzi eta beste hainbat alorretara hedatu da. Ermuan, URVE da fenomeno honen adierazgarri. Irratizale hauen helburua ondo pasatzea, irratia-ren mundua zabaltzea eta taldea mundu osoan ezagutaraztea da. Orain arte ez dute zorte makala izan; Hego Ameriketako eta Europako estatu gehiene-

animatu egiten gintuen. Bestalde, ezinezkoa izango litzateke horrelakorik egitea Babes Zibilekoen laguntzarik gabe".

24 orduen helburuetako bat, iazko kontaktu kopurua gainditzea zen, baina eguraldi txarrak ez zuen posible egin hau lortzea. Hala ere, Italiarekin komunikatzea lortu zuten behintzat... Euriaz blai eginda egon arren primeran pasatu zuten gaua, eta



URVEko Taldea Urkoko gailurrean

kin izan dituzte kontaktuak, eta baita ere, munduko tokirik baxuena (Antartida kenduta) den Magallanes itsasartearekin. "Hain da ezaguna URVE, ezen greziar batek taldekide izateko asmoaz kontaktatu zuela gurekin", komentatzen dute erdi barrez. Beste behin ere, Balduino belgiar erregea zenarekin hitzegin zuen batek; "sarritan izaten dira horrelako kasuak. Ospetsua den norbaitekin ari zara hizketan, eta bere izena entzun arte konturatu ere ez zara egiten".

Ermuan ere ezaguna dugu URVE, urtean zehar hainbat ekintza antolatzen bait ditu, azeriaren ehiza, irratizaleen 24 orduak... Azken hauek ekainaren 18 izan ziren. 400 kilo baino gehiago lepoan hartu eta Urkora abiatu ziren gaua pasatzeko asmoz. "Hurrenagoa behar da hainbeste pisurekin Urkoraino igotzeko, baina zailtasunak

bisitaren bat ere eduki zuten, "esker-tzekoa da, egin zuen eguraldi txarrekin norbait gutaz gogoratu eta bisita bat egiten ausartzeagatik".

Hala ere, URVEkoek aisia ez dela irratizaleen helburu bakarra azpimarratu nahi dute, "guztioak dakigu Bosniako berri gehienak irratizaleen bidez hedatu direla. Beste batzutan, errepideetako informazioa emateko edo larrialdi batetan sendagairen bat bilatzeko medioa ere izaten da".

Badakizue beraz! Irratiaren bidez munduko hainbat tokirekin kontaktatu nahi baldin baduzue, URVEk bere ateak zabalduko dizkizue. Nire aldetik, momentuz, moztu eta akabo, nik ere QRT-n (aparrailua itzalita) egon nahi dut eta...

Ainhua Delgado

GADIFOL-en

Dagoen onena, zuretzat

Komentukoa, z/g Tlf. eta Faxa: 17 06 71

MARFIL

ILEAPAINDEGIA

EDERTZE-ARETOA eta
MEDIZINA ESTETIKOA



Zubiaurre, 32 behegainekoa
17 28 09 Telefonoa.

Kopi - Fax

Kopistegia Papertegia

Torrekua, z/g. 48260 ERMUA
Tfnoa. eta Faxa: (943) 17 42 89

QUETZAL

Opari denda

Zure gustokoa izan dadila!

Goienkale kalea ☎ 17 43 62

GOZOTEGIA

DASTATEGIA

Delicias

- Berton egiten dugu
 - Etxera eramaten dizugu
- Valdespina, 9 Zubiaurre, 2
Tfnoa. 17 15 67